



6. BEZEROEKIKO HARREMANA:


Gure enpresak bezeroarekiko harremana sustatzeko 2 modu desberdin erabiliko ditu, alde batetik Bilbon egongo den gure **denda fisikoa** eta bestetik gure **online denda**. Beraz, bezeroekiko bi harreman mota konbinatuko ditu; **zerbitzu automatizatua** eta **laguntza pertsonala**.

GURE BILBOKO LOKALA:

Hasteko, **laguntza pertsonalari** dagokionez, **denda fisiko** bat edukiko dugu Bilbon, Alde Zaharrean, beraz, bertan gure bezeroei behar duten laguntza eskaini ahalko diegu salmenta egiteko orduan.

Bestalde, bezeroari beste laguntza mota bat eskainiko diogu, eskatuz gero, bezeroak berak diseinatu ahalko ditu nahi dituen bitxiak guri zenbait iradokizun emanaz bere bitxiak diseinatzeko. Azkenengo harreman honen helburua, bezeroek guk egiten ditugun bitxiakiko **harreman estuagoa** sentitzea da.

Honekin batera, bezeroek ekarritako beirazko botilak, gure dendan egongo den ontzi batean bilduko ditugu, beraz, beira birziklatzen interesaturik dauden bezeroekin eduki dezakegun beste harreman mota bat izan daiteke.



Gure lokala alde zaharrean kokatuta egongo da, zehazki, Santiago Plazan, katedralaren alboan.

KOKAPENA: hau edukitzea erabaki dugu hainbat arrazoiengatik:

- ➔ Alde zaharra artisautza produktu gehien saltzen diren zonaldea delako, beraz gure negoziara egokitzen diren bezeroak izango ditugu.
- ➔ Santiago plaza zonalde turistikoa delako eta katedrala bisitatzera etortzen diren atentzioa erakar dezakegu eta gure salmentako handitu.



→ Lokalaren prezioa ondo egokitzen da gure baliabidetara eta gure interesetara.



Hau da alokatuko dugun lokala.

EZAUGARRIAK: Ikusten denez, lokal txikia da, merkataritzarako diseinatua. Bere itxura nahiko tradizionala da eta hu oso ondo egokitzen da gure produktuetara, gainera, itxura nahiko berezia duenez, bezeroen arreta deituko du, batez ere turistena.



TAMAINA: 20m²koa da, eta 2 solairukoa.

PREZIOA: 575€/hilero.

Prezioa nahiko ondo dago Alde Zaharreaan dagoela kontuan hartuz. Ez da garestiegia eta bosten artean ordaindu dezakegu gure salmentekin batera. 2 hilabeteko finantza daukagu.

1. SOLAIRUA

Bertan egongo dira gure produktuak eta bertan bezeroei zuzeneko harremana eskainiko diegu.






El Regato ikastetxea: Paula Alonso, Naroa García, Andoni Goikoetxea, Leire Gojenuri eta Iratxe Lastra

2. SOLAIRUA

Hau gure tailerra izango da, bitxiak egin ahal izateko. Honetaz gain, taldekideen arteko bilerak egiteko esparru bat ere izango dugu.



- GURE WEB ORRIALDEA:



Bestalde, denda fisikoaz gain, interneten online denda bat edukiko dugu, bertan zerbitzu automatizatua emango da. Honetan, gure web orrialdean, bezeroek gure bitxiak erosi ahal izateko beharrezkoak diren bitarteko guztiak bere eskura jarriko ditugu, hau da, bitxi diseinu desberdinak erakutsiko dira, bakoitzaren prezioa, eskaera heltzeko denbora, etab, adieraziko dira web orrialdean, bezeroek erosketa prozesua bakarrik egin dezaten. Bestalde, web orrialdea hain inpersonala ez izateko, gure kontaktua jarriko dugu bertan, bezeroek zalantzaren bat izanez gero, gu deitu ahal izateko.

Bezeroekin dugun harremana mantendu ahal izateko, bezero batek beirazko botilak gure ontzietan birziklatzen dituzten bakoitzean, gure produktuetan aplika ahalko den %20ko deskontua emango diegu. Modu honetan, beira birziklatzeaz gain, hurrengo batean gure dendara itzultzeko arrazoi bate mango diegu pixkanaka-pixkanaka gure ohiko bezeroen sare bat osatzen saiatuz.



Web honetara sartzeko helbidea: <https://birbeiratu.wixsite.com/elkartea>

- **BEZEROEN INTEGRAZIOA**

Bezeroek gure enpresan konfiantza handiagoa izateko eta hauek mantentzeko, hurrengo egingo dugu:

Bezeroak gure proiektuan erabili ahal izateko beirazko botilak ekartzen badituzte geroago, beira horrekin egingo ditugun bitxiak erosteko erabili ahal izango duten beherapenak emango dizkiegu.